



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

GORBEIAKO PARKE NATURALEKO AMEZTIAN BASO- BIODIBERTSITATEA SUSTATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOAN ESKATZEN DIREN BALDINTZEI BURUZKO TXOSTENA

305-SUST-2018 LEA proiektua

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. GORBEIA LEHIAKETA	2
1. Lizitazioa.....	2
2. Finantzaketa: Interreg POCTEFA.....	3
III. ARAZOAREN AZTERKETA LEHIAREN IKUSPEGITIK.....	4
1. Kaudimen eta gaitasun subjektiboa	4
2. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.....	6
3. Gaitasun tekniko edo profesionala.....	7
A. Oinarrizko zerbitzu edo lanen zerrenda	8
a. Aldia.....	8
b. Urteko zenbateko metatua.....	9
B. Giza baliabideen titulu akademikoak	9
IV. Ondorioak	12
V. 1. ERANSKINA	14

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, kidea

Enara Venturini Álvarez, jarduneko idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) osoko bilkurak, arestian aipatutako osaera duela, 2019ko apirilaren 15eko bileran onetsi du «Gorbeiaiko parke naturaleko ameztian (Arabako aldean) parkea karakterizatuz eta kudeaketa-plan bat landuz baso-biodibertsitatea sustatzeko zerbitzuak kontratatze» lizitazioan (Gorbeia Lehiaketa) HAZI Fundazioak (HAZI) eskatzen dituen baldintzei buruzko txostena¹.

¹ https://apps.euskadi.eus/w32-1084/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso13349/eu_doc/eu_arch_expjaso13349.html?ruta=/w32-



I. AURREKARIAK

1. 2018ko irailaren 18an idazki bat jaso zen Lehiaren Euskal Agintaritzan (aurrerantzean LEA). Horren bidez, Gorbeia Lehiaketan lizitatu ahal izateko HAZIk eskatzen dituen gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak zalantzan jartzen zituen.

Azaldutakoaren arabera, eskatzen diren baldintzek merkatu gatibu bati bide ematen diote basogintzaren edo biologiaren arloan titulu jakin bat duten operadoreentzako, arlo horietan lehenago lan egin badute, eta sarrera eragozten diete aurretiko esperientziarik ez duten eta bestelako tituluak dituzten operadoreei. Horregatik, ondorioztatu zuen baldintzak diseinatuta egon litezkeela lizitazio-prezioa hobetzeko pizgarririk ez lukeen enpresa jakin batentzako.

2. 2018ko urriaren 30ean, informazioa eskatu zitzaion HAZIri, eta 2018ko azaroaren 19ko idazkiaren bidez bidali zuen eskatutako informazioa.

II. GORBEIA LEHIAKETA

1. Lizitazioa

3. HAZIk Gorbeia Lehiaketarako deialdia egin zuen Gorbeiko Parke Naturaleko ameztian (Arabako aldean) baso-biodibertsitatea sustatzeko zerbitzuak egiteko, parkea karakterizatuz eta kudeatzeko plan bat landuz.

Adierazitako CPV kodea² 77231900-7 da, «Baso-plangintza sektorialeko zerbitzuak».

4. Lizitazio-prozedura ireki erraztua aukeratu da, eskatzen diren gaitasuna eta kaudimena duten enpresa guztiek aurkezteko aukera izan dezaten.

5. Kontratuaren balio zenbatetsia 52.170 eurokoa da (BEZik gabe)³.

[1084/eu/v79aWar/comunJSP/v79aSubmitBuscarAnuncioFiltro.do?origenSubHome=busquedaPersonalizada](https://www.licitaciones.es/codigos-cpv)

² CPV nomenklatura (*Common Procurement Vocabulary* - Kontratazio Publikoen Izendegi Bateratua) Europar Batasunean lizitazio edo lehiaketa publiko bidez kontratatu daitezkeen jardura ekonomiko guztien identifikazio- eta kategorizazio-sistema da. <https://www.licitaciones.es/codigos-cpv>

³ Txosten honetan esleitutako zenbatekoek ez dute BEZa barne hartzen.



6. Lehenago aipatutako «gaitasun tekniko edo profesionalaz» gain, parte hartu ahal izateko «kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa» eskatzen da.

7. 2018/09/26an, lizitazioa ebatzi zen eta AIALUR SLri esleitu zitzaion 42.560 euroren truke⁴.

2 lizitatuak aurkeztu dira, eta beste lehiakidea ECM INGENIERIA AMBIENTAL SL izan da.

2. Finantzaketa: Interreg POCTEFA

8. Gorbeia Lehiaketa Interreg POCTEFA lurralde-lankidetzarako Europako programari atxiki zaio. Programa horren helburua da Andorra, Espainia eta Frantziaren arteko lurralde mugakidearen garapen jasangarria sustatzea⁵.

9. POCTEFA 2014-2020 programa— Europar Batasuneko finantza-laguntzaren bosgarren belaunaldia— proiektu-deialdietan antolatzen da eta hautatutako proiektuek (programatutako proiektuak) Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) lagundutako finantzaketa jaso dezakete.

10. EFA057/15 GREEN programa-proiektuaren («Pirinioetako naturaguneen kudeaketa eta sarean jartzea») bazkide onuradunetako bat da HAZI. Proiektu horren ekintzetako bat biodibertsitatea sustatzeko basoen kudeaketa mota desberdinak identifikatu eta eskuratzea da, eta ekintza horren barruarekin bat dator Gorbeia Lehiaketaren xedea.

11. Hiru foru-aldundiak onuradun elkartuak direnez, proiektua babesten dute, baina ezin dute zuzenean laguntza eskuratu. Gorbeia Lehiaketan onuradun elkartua Arabako Foru Aldundia da (AFA), Gorbeia Parke Naturaleko Arabako aldea berak administratzen baitu, eta ekintza bertako ameztiaz egingo denez.

«Biodibertsitatea sustatzeko...» ekintzaren barruan, HAZIk garatzen duen zatiak 240.033,86 euroko aurrekontua du.

⁴ https://apps.euskadi.eus/w32-1084/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso13349/eu_doc/eu_arch_expjaso13349.html?ruta=/w32-1084/es/v79aWar/comunJSP/v79aSubmitBuscarAnuncioFiltro.do?origenSubHome=busquedaPersonalizada

⁵ POCTEFA programari buruzko informazioa hemendik eskuratu dugu: <https://www.poctefa.eu/> eta <https://www.hazi.eus/eu/proyectos-hazi-2/europako-proiektuak/interreg-poctefa-eus/8512-poctefa-green-pirinioetako-naturaguneen-kudeaketa-eta-sarean-jartzea.html>



12. Ogasun Ministerioa da POTECEFA 2014-2020 programako Ziurtapen Agintaritza, eta bera arduratuko da Europako Batzordeari ordaintzeko eskabideez eta kontuen ziurtapenez.

III. ARAZOAREN AZTERKETA LEHIAREN IKUSPEGITIK

1. Kaudimen eta gaitasun subjektiboa

13. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen⁶ (SPKL 2017) lehenengo artikuluekin bat etorritik, kontratazio publikoan lehia askea babestu nahi bada, eskatzen diren lan edo zerbitzuak burutzeko gai diren ahalik eta enpresa gehienei ireki behar zaie lizitazioa.

Sektore publikoarekin kontratuak gauzatzeko, kontratazio-organoak zehazten dituen kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta gaitasun profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute enpresek. Eskatzen diren baldintzak kontratuaren xedearekin lotura izango dute eta xedearekiko proportzionalak izango dira, 2017ko SKPLren 74. artikuluekin bat etorritik.

Gauzak horrela, lehia sustatzeko beharrak kontratazio-organoak ardura berezia izatea eskatzen du aurrez finkatutako eskakizunak zehazteko garaian, ahalik eta enpresa gehienek parte hartu ahal izateko.

14. Beraz, HAZIk kaudimen- eta gaitasun-irizpideak antolatzeke askatasun-marjina nahikoa du, diskrezionalitate tekniko horrek arbitrariorotasunik sortu gabe. Hortaz eskatzen diren irizpideak justifikatuta egon behar dira, zentzuzkoak, ez-diskriminatzaileak eta kontratuaren xedearekiko eta neurriarekiko proportzionalak izan behar dira.

15. Zalantzan jartzen da Gorbeia Lehiaketan HAZIk eskatzen dituen baldintzak parte hartzeke justifikatu gabeko oztopoak izan daitezkeen –merkatu jakin batean sartzeko operadore berriak etsiarazi edo zuzenean sarrera galarazten dien zailtasun eta kostu gisa ulertuta⁷– merkatuko benetako lehiari kalte eginez.

⁶ 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

⁷ LEHIAREN DEFENTSAKOKO AUZITEGIA Kontzentrazio Ekonomikoen Espedientearen Txostena C89/05 Igalatorio Medikoak, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/expedientes.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=&p=0&numero=C89/05&ambitos=Concentraciones&estado=0§or=0&av=1>



- 16.** Antzeko kasuetan⁸ LEAk ondorioztatu du baldintza eskatzea (gutxieneko esperientzia eta prestakuntza) merkatuan sartzeko oztopo zela eta beste enpresa eta profesional batzuk kanpoan uzten zituela, nahikoa justifikatuta ez baldin bazegoen eta ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumena babesteagatik eskatzen zela frogatzen ez baldin bazen.
- 17.** Behin baino gehiagotan, lehia-agintaritzak eta kontratazio-epaimahaiek adierazi dute kontratu bakoitzaren ezaugarri subjektiboa dela kaudimen/gaitasun beharrezkoaren eskakizunarena; hortaz, ez dago eskatu beharreko kaudimenari/gaitasunari buruzko arau orokorrik, xedea eta kontratatuko den zerbitzua desberdina baita beti, eta beraz, kasuan kasukoa erabakiko da, gauzatu beharreko zerbitzuetara egokituta⁹.
- 18.** Horregatik, Gorbeia Lehiaketa lizitazioaren eta kontratatzeko gaitasunaren lotuta eskatzen diren baldintza espezifikoen –edo kaudimen- eta gaitasun-baldintzen– azterketa espezifikoa egin da. Bereziki, baldintzok lehiarentzako mugatzat har daitezkeen aztertu da, eta beren behar eta proportzionaltasunarekin alderatu dira.
- 19.** 2017ko SKPLn xedatutakoa betez, HAZIk ez die aurretiko sailkapenik eskatu enpresei Gorbeia lizitazioan¹⁰ kontratua eskuratzeko, baizik eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko edo profesionalen gutxieneko irizpideak eta baldintzak zehaztu ditu. Ondoren irizpide eta baldintza horiek aztertuko ditugu:

⁸ Mahats-uztak balioesteko zerbitzuak kontratatzeko lizitazio-pleguan HAZIk eskatutako gutxieneko esperientziaren baldintzari buruzko txostena. (2015eko irailaren 16a).

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/INFORME%20HAZI%20ESTIMACI%C3%93N%20DE%20COSECHAS%20DE%20VI%C3%91A.es_EU.pdf

HAZIk tokian bertan kontrolak egitea kontratatzeari buruzko txostena. (2016ko ekainaren 8a)

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/Proyecto%20071%20INFORME%20HAZI%20definitivo.docx_es-ES_eu-ES_EU.pdf

⁹ Lehiaren Euskal Agintaritzza. Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gida. http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias_gidak/eu_gidak/adjuntos/GUIA_CONTRATACION_COMPETENCIA_eu.pdf

¹⁰ SKPL 2017. 77.1.b) artikulua: Zerbitzuen kontratuetarako ez da galdagarria izango enpresaburuaren sailkapena. Lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko dira ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta gaitasun tekniko edo profesionaleko gutxieneko irizpideak eta betebeharrak, bai legearen 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoari dagokionez...



2. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

20. HAZIk kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko eskatzen die lehiaketan interesa duten enpresei, honako bide hau erabiliz:

«Kontratuaren alorreko urteko negozio-bolumena, azken hiru erabilgarrienen arteko ekitaldi onenarena (horiei dagokionez, urteko kontuak onartzeko betebeharra beteta dagoena), lizitatzailaren jarduerak eratzeko edo hasteko eta eskaintzak aurkezteko egunen arabera, gutxienez, 50.000 eurokoa izan beharko da (BEZik gabe)».

21. Erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako ekitaldirik onenaren urteko negozio-bolumenerako finkatu den gutxieneko zenbatekoa (50.000 €) kontratuaren balio zenbatetsiaren % 96 da.

Portzentaje hori % 97 ingurukoa da; antzeko lizitazioetan eskatutako baldintzen azterketa alderatuan lortu da batezbesteko hori (Ikusi xehetasunak 1. eranskinean); era berean, ratioa % 37-% 121 arteko tartean dagoela ikus daiteke.

22. Beraz, baldintza horrek errespetatu egiten ditu formalki 2017ko SKPLk ezarritako parametroak (87.1.a. artikulua):

Urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak –eratzeko datuak arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren datuak arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin lotutakoak.

23. Dena den, ez ditugu ezagutzen gaitasun ekonomiko eta finantzarioaren egiaztapen-bide hau bakarrik aukeratzeko HAZIk izan dituen arrazoiak, beharizan, proportzionaltasun eta kontratuarekiko loturari dagokionez, Gorbeia Lehiaketan eskatzen dituen zerbitzuak burutu ahal izateko, bide horrek operadore berriak kanpoan utz baititzake.

24. Nolanahi ere, komenigarria litzateke egiaztapen-bide hau kaudimen ekonomiko eta finantzarioa ebaluatzeko parametro bakar bezala erabiltzearen egokitasuna berriz aztertzea, enpresaren tamainaren adierazle baita, eta ez



enpresaren osasunari buruzko adierazle¹¹. Izan ere, alderdi hori hobeto egiaztatuko litzateke arestian aipatu dugun 87. artikulua adierazten dituen bestelako irizpide batzuen bidez (ondare garbia eta, hala badagokio, hornitzaileei ordainketa egiteko batez besteko epea).

Horrez gain, 87.1.b) artikuluan, lizitaziorako lehia sustatuko lukeen ordeko beste egiaztapen-bide bat aipatzen du HAZIk erabilitakoaz gain: honako hau aurkeztea:

Arrisku profesionalak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzearen egiaztapena, lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gaindituko duena.

3. Gaitasun tekniko edo profesionala

25. Gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko, honako hau justifikatu beharko da Gorbeia Lehiaketan¹²:

Gutxienez azken hiru urteetan baso inbentario, planifikazio eta ekologiarik lotutako zerbitzuak egin izana, exekuziorik handieneko urtean urteko zenbateko metatua 25.000 euro edo gehiago izanik (BEZa kanpo).

Horrez gain, lizitatuzaileek kontratua betetzeko atxiki beharko dituzte, gutxienez, honako giza baliabide hauek:

- Basogintzako unibertsitate-titulua.
- Biologia edo ingurumen zientzietako gradua, ekologian espezializatuta.

26. HAZIk honako hau dio: «Eskatzen diren kaudimen- eta gaitasun-irizpideak kontratuaren xedearekin lotuta daude eta horrekiko proportzionalak dira»; eta zehazten du: «Enpresa esleipendunari egiaztatutako esperientzia eskatuko zaio antzeko planak egitearen arloan, eta teknikari gaituak izan beharko ditu gainera»¹³. Baina ez du azaltzen zein arrazoitan oinarritzen diren argudio horiek.

¹¹ Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horixe adierazten du zerbitzarien, biltegiarizte-sistemen eta azpiegitura-softwareen hornidurarako esparru-akordioaren gauzapena arautzen duten pleguei buruzko txostenean (INF/CNMC/133/18). 2018. https://www.cnmc.es/sites/default/files/2156522_1.pdf.

¹² Lizitazio-karatula (10. puntua)

http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-1084/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso13349/eu_doc/adjuntos/caratula1.pdf

¹³ Gorbeia Parke Naturaleko ameztia (Arabako aldean) karakterizatzeko/kudeaketa-planerako kontratazioari buruzko txostena. https://apps.euskadi.eus/w32-1084/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso13349/eu_doc/eu_arch_expjaso13349.html?uta=/w32-



27. Gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko, HAZIK ondoren aztertuko diren baliabide hauek aurkeztea aukeratu du –biak 2017ko SKPLn jasotzen dira (90. artikulua)–: A) Izaera berdina edo antzekoa duten zerbitzuak edo lanak eta B) gutxieneko giza baliabideen titulu akademikoak.

A. Oinarrizko zerbitzu edo lanen zerrenda

a. Aldia

28. HAZIK erreferentziazko aldi bat aipatzen du (azken hiru urteak) antzeko xedea duten lanen zerrendarako. Aldi hori 2017ko SKPLn jasotzen den gehieneko epearekin bat datorren arren, Lege horrek hiru urte baino gehiago luzatzeko aukera ere ematen du, lehiaren maila egokia bermatzeko beharrezkoa denean¹⁴.

29. Antzeko lizitazioen azterketa alderatuan (ikusitako xehetasunak 1. eranskinean) honako hau ikus daiteke:

- lanen zerrenda 7 lizitazioetan (% 54) erabili da egiaztapen-bide bezala.
- lizitatuzaileen kopurua 3 eta 18 artekoa izan da
- 5 lizitazioetan ohiko erreferentzia-aldia bost urtekoa izan da, 2 lizitazioetan, aldiz, aldia HAZIK finkatutakoaren antzekoa izan da: hiru urtekoa. 5 urteko erreferentzia-aldia duten lizitazioetan lizitatuzaileen kopurua aldatu egin da 17 eta 18 artean, hiru urteko erreferentzia-aldia duten lizitazioetan berriz, 3 lizitatuzaile bakarrik izan dira.

Laburbilduz, jasotako datuek honako hau adierazten dute:

- merkatu horretako lizitazioetan 18 enpresek parte hartu dute aldi berean.
- lizitatuzaileen kopurua argiki handiagoa izan da gauzatu beharreko zerbitzuak egiaztatzeko aurreko bost urteak kontuan hartu direnean.

30. Ondorioz, esan liteke, zerbitzu edo lan garrantzitsuenak egiaztatzeko HAZIK finkatutakoa (aurreko 3 urteak) baino epe luzeagoa finkatuz gero, lehia handiagoa sustatuko litzatekeela, lizitatuzaile gehiagok parte hartuko luketelako.

1084/es/v79aWar/comunJSP/v79aSubmitBuscarAnuncioFiltro.do?origenSubHome=busquedaPersonalizada

¹⁴ 90.1. a) artikulua. Gehienez ere azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu eta lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatuzaileek adierazi ahaliko dute kontuan hartuko direla hiru urte lehenago arte egindako zerbitzuei buruzko frogak.



b. Urteko zenbateko metatua

31. HAZIk exekuziorik handieneko urtean urteko zenbateko metatua 25.000 € edo gehiagoan finkatu du baso-inbentario, -planifikazio eta -ekologiari lotutako zerbitzuak egiaztatzeko.

Zenbateko hau kontratuaren gehieneko balio zenbatetsiaren % 48 da (52.170 €) eta formalki 2017ko SKPLk ezarritako parametroen azpitik kokatuko litzateke: % 70a gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko baliabiderik zehazten ez duten lizitazioentzako¹⁵.

32. Dena den, irizpide ekonomikoak txertatzean kaudimen- eta gaitasun-betekizun biak gainjarri daitezke¹⁶ eta egiaztatzeko modua birpentsatzea gomendatzen da, 2017ko SKPLko 90. artikuluan jasotzen diren egiaztapen-bideak aukeratuz edo zenbatekoen aipamenik jaso gabe, 1. eranskinean aztertu diren lizitazio batzuetan egin den bezala.

B. Giza baliabideen titulu akademikoak

33. Gorbeia Lehiaketan gutxieneko giza baliabide hauek behar dira:

- Basogintzako unibertsitate-titulua.
- Biologia edo ingurumen zientzietako gradua, ekologian espezializatuta.

HAZlren esanetan honako hau da eskakizun horren oinarria: «Kontratuaren berezko izaera, hots, basoko biodibertsitatea bultzatzeko baso-antolamendua».

34. 2017ko SKPLk (90.1. e artikulua) honako hauek hartzen ditu gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko baliabidetzat, ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna aintzat hartzeko aukera ematen dutelako:

«Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta, batez ere, kontratua egikaritzeko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta obrak zuzenean arduratuko diren teknikarienak ere...»

¹⁵ 90.2. art. Lizitazioaren iragarkian... zein bitarteko onartzen diren kontratua esleitzea bilatzen duten enpresaburuaren gaitasun teknikoa egiaztatzeko, behar izanez gero, haietako bakoitzarentzat eskatuko diren gutxieneko balioak berariaz adierazita, eta, aplikatzekoa denean, titulazio akademikoak edo profesionalak, azterketa- eta ikerketa-bitartekoak, kalitate-kontrolak, gaitasun teknikoaren ziurtagiriak, makineria, tresneriak eta instalazioak, eta eskatzen diren ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak zehazturik direla. Halakorik ezean, azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrendaren bitartez egiaztatuko da gaitasun tekniko edo profesionala. Horretarako, urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontuan.

¹⁶ INF/CNMC/133/18 Zerbitzarien, biltegiatze-sistemen...pleguei buruzko txostena. Op. cit.



35. Lanaren helburu nagusia Gorbeiake ameztiaren (Arabako aldea) kudeaketa-plana egitea da. Planaren gutxieneko edukiak honako hauek izango dira, besteak beste¹⁷:

- Ameztiaren diagnostiko multifuntzionala.
- Amezti moten karakterizazioa eta baso-inbentarioa, bereziki baso-heldutasunari buruzko adierazleak kontuan hartuta.
- Banaketa dasokratikoa, kantoia eta unaden jabetza eta mugak kontuan hartuta. Ameztiko unada txikiak edo jarduketa-unitateak deskribatzeko, 61/2010 Foru Dekretuan (Basoen kudeaketarako plan teknikoaren ezaugarriak ezartzen dituen) ezartzen diren datuak aurkeztu beharko dira gutxienez.
- Kontserbazio-egoera ebaluatzea masen arabera (unadak eta kantoiak), honako adierazle hauek oinarritzat hartuz: (1) Habitat-unitatearen tamaina eta isolamendua, (2) Egitura mota eta segida-egoera, (3) Landare-espezieen osaera, (4) Tamainaren banaketa, (5) Adinaren banaketa, (6) Hildako zuraren kantitatea eta mota, eta (7) Errezelaren egoera fitosanitarioa.
- Kudeaketa Planaren helburuak: orokorrak eta espezifikak
- Plangintza: xede-mendia eta plan operatiboa, 20 urteko denbora-horizonteduna. Plan operatibo horrek plan sektorial hauek barne hartuko ditu gutxienez:
 - Basoen plana. Honako hauek barne hartzen ditu: tratamendu eta aprobetxamenduetan aplikatu behar diren baso-irizpide eta irizpide dasokratikoen multzoak zehaztea, soilguneen pisua eta txandaketa mugatzeko, masa leheneratzeko baldintzatzaileak, baso garaia bihurtzea, etab.
 - Baso-arloko ikerketa-esperimentazio plana, Baso-suteen auto-prebentzioarako plana, Hedapen-plana, Belarrek eragindako kalteen jarraipenerako plana eta Baso-jarraipenerako plana.

Bestalde, Ameztia kudeatzeko plana egiteko, Mendien Antolamendurako Baldintza Teknikoen Agirian (Araba), (Genea 2012), xedatutakoa hartuko da kontuan (beharrezkoa bada).

¹⁷ Preskripzio tekniko partikularren plegua, Gorbeiake parke Naturaleko ameztian (Arabako aldean) baso-biodibertsitatea sustatzeko zerbitzuak egiteko, hura karakterizatuz eta kudeatzeko plan bat landuz. https://apps.euskadi.eus/w32-1084/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso13349/eu_doc/adjuntos/pliego_bases_tecnicas1.pdf



Horrez gain, jarduera hauek burutu beharko dira:

- Kudeaketa-planaren laburpen exekutiboa.
- Jarduketaren hurrengo 5 urteetan mendian egindako mozketak selektiboak seinatzea (Baso-plana, lkerketa-esperimentazio plana).
- Aurreikusitako bide-sarea planifikatzea (Baso-plana, Baso-suteen auto-prebentziorako plana).
- Gorbeia ameztiaz baso-kudeaketa hedatzeko liburuxka egiteko beharrezkoak diren eduki teknikoak eta webgunerako edukiak egitea (Hedapen-plana).
- Prestakuntza teoriko praktikoa Arabako Foru Aldundiko baso-eragile eta teknikarientzako.

36. Eskatzen diren tituluek, zalantzarik gabe, Gorbeia Lehiaketako zereginak gauzatzeko beharrezkoak diren gaitasunak dauzkate, horrek baina, ez du esan nahi lehiaketako berezko zereginak behar bezala burutu ahal izateko bestelako prestakuntzarik ez dagoenik.

Izan ere, idazketa irekiago bat egitea posible izan zitekeen, gauzatutako azterketa alderatuan ikus daitekeen bezala (1. eranskina):

TITULU AKADEMIKO JAKIN BAT ESKATZEN DA	LIZITAZIO KOP.	ESKATUTAKO KUALIFIKAZIOA
Bai	7	Baso Ingeniaritza Teknikoa, Mendi Ingeniaritza, edo gradu baliokidea
Ez (baina ezagutza espezifikoa behar dira)	2	Baso-ekologiaren arloan ezagutza espezifikoa duten langileak, elementu ekologikoen karakterizazioaren, inbentarioaren eta habitaten balorazio eta kartografiaren arloetan ezagutza espezifikoa edo prestakuntza egiaztatua dutenak.
EZ	4	

Lana burutzeko titulu jakin batzuei lotutako kualifikazio teknikoak zehaztu beharrean ezagutza jakin batzuei lotutakoa zehazteak, Gorbeia Lehiaketara aurkez zitezkeen enpresen espektroa handituko zukeen, eta ondorioz, baita lehia sustatu ere.



IV. Ondorioak

LEHENENGOA.- Kontratazio publikoan lehia askea babesteak ahalik eta lehia handiena sustatuko dela esan nahi du, eta horretarako, finkatuko diren baldintzak konfiguratzerakoan kontu handiz ibili behar da, ahalik eta enpresa gehienek parte har dezaten.

BIGARRENA.- Sektore publikoko kontratuak eskuratu ahal izateko, enpresek kaudimen ekonomiko, finantzario eta gaitasun profesional edo teknikoko gutxieneko eskakizun edo baldintza batzuk betetzen dituztela egiaztatu behar dute. Baldintza edo eskakizun horiek kontratazio-organoak zehaztuko ditu eta kontratuaren xedearekin lotura dutenak eta helburuarekiko proportzionalak izan behar dira.

Administrazio kontratatzaileak askatasun-marjina handia dute kaudimen-irizpideak eta horiek egiaztatze bideak aukeratzeko orduan. Baina irizpideok justifikatuta egon behar dute, zentzuzkoak, ez diskriminatzaileak eta kontratuaren neurri eta helburuarekiko proportzionalak izan behar dira. Irizpideak finkatzeak ez du, inolaz ere, parte hartzeko neurritz kanpoko oztoporik sortu behar, operadore berriei parte-hartzeko gogoia kendu eta merkatuen eta kontratazio publiko eraginkorraren funtzionamendu egokirako behar den tentsio lehiakorra murriztuz.

HIRUGARRENA.- HAZIk Gorbeia Lehiaketa lizitazioan parte hartzeko eskatzen dituen kaudimen- eta gaitasun-baldintzak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak xedatutakoarekin benetan bat datoz, baina horien beharrari eta proportzionaltasunari buruzko argudio sendorik ez da eman. Gainera, Gorbeia Lehiaketako lehia biziagoa izan zitekeen –lizitaziora bi enpresa aurkeztu ziren– honako hau kontuan hartuz gero:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez:

- Eskatutako baldintzak egiaztatze bide batzuk txertatuz, hala nola, ondare garbia, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea edo arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguruua.



Gaitasun tekniko edo profesionalari dagokionez:

- Antzeko xedea duten lanen egiaztapena, aurreko hiru urteetako epea baino aldi luzeagoa kontuan hartuta.
- Beste egiaztapen-bide batzuk aukeratzea, edo zenbatekorik ez aipatzea, eskakizun ekonomikoak gainjartzea ekiditeko.
- Giza baliabideen kualifikazioaren egiaztapenari buruzko idazketa irekiagoa egitea.



V. 1. ERANSKINA¹⁸

CPV		LIZITAZIOA	BALIO ZENBATETSI A (BEZ GABE)	KAUDIMEN- ETA GAITASUN-IRIZPIDEAK			ADJUDIKAZIO DUNA	Aurkeztutako kop.
KODEA	DEFINIZIOA			Teknikoa-Profesionala 1	Teknikoa-Profesionala 2	Ekonomiko-Finantzarioa		
				Irizpidea		Irizpidea		
77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak	Enguerako (Valentzia) baso-mugapearen Baso Baliabideak Antolatzeko Plana idaztea.	166.536,00 €	Azken bost urteotan burututako lanak (2012-2016). Exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa > 47.018,66 €	Gutxienez Baso Ingeniari Tekniko 1 edo Mendi Ingeniari 1, edo gradu-titulu baliokidea duena, antzeko zerbitzuetan gutxienez hiru urteko esperientziarekin; bera izango da proiektua idazteaz arduratuko den teknikaria.	Amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urtea (2013-2015) > 201.508,56	EVREN, EVALUACIÓN DE RECURSOS NATURALES SLP	17
77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak	Crevillenteko (Alacant) baso-mugapearen Baso Baliabideak Antolatzeko Plana (BBAP) idaztea, Valentziako Erkidegoko Baso Lurralderako Ekintza Planean (PATFOR) zehazten diren baldintzatzaile eta ildoak jarraituz.	202.024,80 €	Azken bost urteetan burututako lanak. Exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa > 57.038,34 €		amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urtea (2013-2015) > 244.450,01	ZUMAIN INGENIEROS SL	18
77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak	Lliriako (Valentzia) baso-mugapearen Baso Baliabideak Antolatzeko Plana (BBAP) idaztea	138.165,30 €	Amaitutako azken bost urteetatik exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa > 39.008,67 € kontratuaren xedearen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuetan.		Amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urtea (2014-2016) > 167.180,01	TÉCNICA Y PROYECTOS SA (TYPASA)	18
77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak	Artikutzako zuhaitziaren baso-aprobetxamenduko administrazio-kontratu berezia.					BERDABIO BASOGINTZA SL	5

¹⁸ CPV (Common Procurement Vocabulary - Kontratazio Publikoen Izendegi Bateratua) berbera duten lizitazioak jaso dira –2017ko SKPLren 90.1.a) artikulua erreferentziatzen dituenak lan batek kontratuaren xedearen izaera berdina edo antzekoa duen zehazteko–, baita CPV desberdina izan arren antzeko zereginen deskribapena dutenak ere.



77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak	Asturiasko Onura Publikoko Mendien Katalogoan 155 zenbakidun onura publikoko Peñamayor (Nava) mendiaren Baso Antolamendurako Proiektua idazteko zerbitzua.	23.083,84 €	Sailkapena: Taldea O, Azpitaldea 6, Kategoria 1 (150.000 € euro baino gutxiago urtean).		Baliabide propioak gutxienez kontratuaren prezioaren % 20koak.	PROGRESO QUERCUS SL	17
77231900-7	Baso-plangintza sektorialarekin lotura duten zerbitzuak (Ribadesella)	Baso Antolamendurako Proiektuen Idazketa Zerbitzuen Zerbitzu Kontratua	54.580,80 €	azken bost urteetako mota bereko lanak exekuzio egokiaren ziurtagirik ziurtatuta. Exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa > 15.000 €.		azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokion urteko negozio-bolumena > 20.000 €	Moal Muniellos	18
907130000-8	Ingurumen-aholkularitzako zerbitzuak	Pagadi-izeidiaren egitura eta dibertsitate floristikoa azterketa, baso-ustiapena burutu den pagadi-izeidi produktiboen eremuekin alderatuz, izeidien eta pagadi-izeidien dinamikari buruzko azterketa- (Larra-Aztaparreta KBE eta Orreaga-Iratiko Oihana KBE)-EFA057/15 GREEN-% 65 EGEFk finantzatuta.	32.612,00 €	Egungoaren antzeko garrantzi teknikoa duten azken HIRU urteetan gauzatutako zerbitzuak; baso-eraketa edo habitaten azterketa eta diagnostikoari buruzko INGURUMEN LAGUNTZA TEKNIKOKO lanak jaso beharko dituzte nahitaez.				
73220000-0	Garapen-bidean dauden aholkularitza-zerbitzuak	El Mailloko (Salamanca) onura publikoko mendien multzoko baso-plangintza berrikustea.	46.475,25 €		basogintza-arloko unibertsitate-titulu espezifikoak duten langileak, gutxienez Baso Ingeniari Tekniko bat (edo basogintza-graduko titulu baliokidea)	urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteotako negozio-bolumenik handiena, 46.500,00 eurokoa edo handiagoa izan beharko da	AGRESTA	13
73220000-0	Garapen-bidean dauden aholkularitza-zerbitzuak	Burgosko probintziako onura publikoko mendien katalogoan 14., 15., 16., 17., 30., 31., 47., 48., 49., 50., 51. eta 64. mendien baso-plangintza, Fresneda de la Sierra, Santa Cruz de Valle Urbion, Pradoluengo eta Villagalijo udal-mugarteetan.	120.344,80 €		basogintza-arloko unibertsitate-titulu espezifikoak duten langileak, gutxienez Baso Ingeniari Tekniko bat (edo basogintza-graduko titulu baliokidea)	urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteotako negozio-bolumenik handiena, 98.465,00 eurokoa edo handiagoa izan beharko da.	AGRESTA	
71356200	Laguntza teknikorako zerbitzuak	Basogintza-plana idaztea, Errioxako ekialdeko sektoreko pinudi eta artadietan klima-aldaketara egokitu eta hori	75.011,35 €		gutxienez 4 Mendi Ingeniari edo Baso Ingeniari Tekniko edo titulazio baliokideak.	Ondorengo bide hauetatik bat: 1) Lizitatzailaren urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru	AGRESTA	2



		murriztera bideratuta				urteotako negozio-bolumenik handiena, gutxienez 64.295,44 eurokoa izan beharko da. 2) Gutxienez 64.295,44 euroko arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguru edukitzea, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte indarrean dena.		
90712200	Baso-kontserbaziorako estrategia planifikatzea	Valentziako probintzian dagoen Requena baso-mugapeko (3. mugapena) onura publikoko mendi batzuen antolamendu-proiektuak idaztea.	102.566,18 €	Exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 53.847,24 eurokoa edo handiagoa izatea, kontratuaren xedearen izaera berdina edo antzekoa duten zerbitzuetan (saikapeneko azpitalde berbera). Enpresak gutxienez bi urteko esperientzia duela egiaztatu beharko du zerbitzu-prestazio horietan, gutxienez azken bost urteetan (2012-2016).	gutxienez Baso Ingeniari Tekniko 1, edo Mendi Ingeniari 1 edo kontratuko lanak gauzatzeko gaitzen duten titulu baliokideak; bera izango da teknikari arduraduna eta proiektuak idatziko dituen.	Amaitutako azken hiru ekitaldietatik exekuzio handieneko urtean izandako negozio-bolumena > 102.566,18 €.	AGRESTA	18
90720000	Ingurumena babestea.	Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) baso helduetako unaden inbentarioa, karakterizazioa eta kartografia.	45.000,00 €		Baso-ekologiaren arloan ezagutza espezifikoa duten langileak. Gutxienez hiru urteko esperientzia baso-habitaten ekologiarekin lotutako lanen gauzapenean.	Urteko negozio-bolumenaren zenbatekoa, lizitazio-iragarkian eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbatekoa edo handiagoa, edo halakorik ezean, erregelamendu bidez ezarritakoa.	AGRESTA	4 : AGRESTA (Madrid); Progreso Quercus SL (Badajoz).; Adra Ingeniería y Gestión del Medio SLP (Kantabria); Schwendtner García y Cárcamo Bravo SL (Nafarroa)



90720000-0 -	Ingurumena babestea (Nagusia)	Plentzia-Mungia eskualdeko elementu ekologikoen inbentarioa, karakterizazioa eta kartografia.	40.000,00 €	Zehaztutako zerbitzuen prestazioa. Gutxienez hiru urteko esperientzia habitaten karakterizazio, kontserbazio-egoeraren ebaluazio eta kartografiarekin lotutako lanen gauzapenean, baita lurralde-konektagarritasunari eta lurraldearen kudeaketari buruzko lanen gauzapenean ere. Azken hiru (3) urteen barruan xede diren eragiketekin lotuta gauzatutako ekintzen zerrenda zehaztu beharko du, zerbitzua, datak eta zenbatekoa azalduta. Zalantzarik izanez gero, eskainitako zerbitzuen egiaztagiri formalak eskatu ahal izango ditu Ihobe SAK.	Teknikariak. Bere langileak edukitzea, eta baso-ekologiaren arloan ezagutza espezifikoa duten langileen edo elementu ekologikoen karakterizazioaren, inbentarioaren eta habitaten balorazio eta kartografiaren arloan ezagutza espezifikoa edo prestakuntza egiaztatua dutenen kontratuaren gauzapenera atxikitzea.	Urteko negozio-bolumen orokorra: Urteko negozio-bolumenaren zenbatekoa, lizitazio-iragarkian eta kontratuaren pleruetan eskatzen den zenbatekoa edo handiagoa.	CONSULTORA DE RECURSOS NATURALES SL	3. urtea: BASOINSA SL; IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE SAU; CONSULTORA DE RECURSOS NATURALES SL
--------------	-------------------------------	---	-------------	--	---	--	-------------------------------------	--

Iturria: Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma